

Arrasate, 2016ko ekaina

LABORAL Kutxak Ingurumena Kudeatzeko Sistema bat dauka ezarrita, eta sistema horri esker, ingurumenaren arloko legeria zorrotz betetzeko konpromisoak eta gai horren inguruan sinatutako beste konpromiso boluntario batzuk betez gara ditzake LABORAL Kutxak bere jarduerak. Sistema horren helburua kutsaduraren prebentzioa eta ingurumenaren etengabeko hobekuntza lortzea da.

Konpromiso horiek betetzeko, honako jardun-ildo hauek ezartzen dira lehentasunezkatzat:

- Plantilla osoa jabetzea eta motibatzea prestakuntzaren eta sentsibilizazioaren bitartez, ingurumenari buruzko jardunbide arduratsuetan aktiboki inplika daitezzen.
- Sortutako hondakinak gutxitzea, ahalik eta hondakin gehien birziklatzea, baliabide naturalen kontsumoa murriztea eta berotegi-efektuko gasen emisioa murriztea. Hori lortzeko, baliabideen erabilera murrizteko eta efizientzia optimizatzeko behar diren barneko kudeaketa-prozesuak ezarriko dira.
- LABORAL Kutxako lantoki guztietara eramatea, ahal den neurrian, Ingurumena Kudeatzeko Sistemaren ingurumena kudeatzeko aplikatzen diren irizpideak eta jardunak.
- Intereseko gainerako gure taldeekin lankidetzan jardutea, bereziki ingurumena kontserbatzen laguntzeko eta bultzatzeko; horretarako, enpresa hornitzaile eta azpikontratatzaileekin dugun harremanean ingurumen-arloko arauak eta irizpideak ezarriko ditugu.

LABORAL Kutxaren Ingurumen Politika hau jende guztiarentzat dago eskuragarri Erakundearen webgunean.



Julio Gallastegui
Zuzendari Nagusia